



EBAZPENA, 2021eko azaroaren 11koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak argitara ematen dira, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituen barematu ostean (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu ziren)

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez (2020ko otsailaren 27ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen. Agindu horren 8.7 oinarriak zehazten duenarekin bat etorritik, bai eta sailburu beraren 2020ko uztailaren 29ko Aginduarekin ere, egindako deialdietako epeei eta denbora-erreferentziei buruzkoa,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek barematutako merituei dagozkionak (I. eranskinen I eta II atalak eta III.3 eta III.4 azpiatalak eta II. eranskinen I atala eta III.1 eta III.2.4 azpiatalak), Hezkuntza sailburuak 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan.

Bigarrena.- Espezialitate guztietako izangaiek merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda ondorengo tokian emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu behar dira):
«EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – kidegoa eta espezialitatea adierazi behar dira – «Emaizak» – «Lehiaketa-aldia – Partziala».

Hirugarrena.- Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko zerrendaren kontra, lau laneguneko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (2021eko azaroaren 15etik 18ra arte, biak barne).

Erreklamazioak on-line aurkeztuko dira honako Interneteko helbide honetan: www.irakasle.eus («Erabiltzailea» eta «Pasahitza») – «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Merezimenduak (LKZ): Erreklamazioak eta zuzenketak entregatzea».

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 11.

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.